



## **2020 HAUTESKUNDEAK**

### **HAUTESKUNDE BATZORDEA**

### **II ERANSKINA**

### **GFF-FGF ko PRESIDENTE ETA DIREKTIBA BATZORDEA BOZKATZEKO BATZAR OROKORRA. 2020ko ABENDUAREN 14 a. ARRATSALDEKO 7ak**

### **ATANO III FRONTOIA**

#### **BOZKAKETA PROTOKOLOA**

Batzar Orokorraren izaera bakarra, GFF-FGF ko presidentea eta Direktiba Batzordea aukeratzeko bozketa egitearena da.

Hauteskunde Araudiko 54 artikulua dioen bezala, bozketa estamentuz izango da, horrela, hauteskunde mahaiko presidentek, Batzarkide bakoitza izenez deituko du bozka kutxan kokatu dezan.

Bozketa txanda ondorengo hau izango da:

- 1- Jokalarien estamentua
- 2- Teknikarien estamentua
- 3- Epailen estamentua
- 4- Taldeen estamentua

Bozka sekretua izango da eta, hauteskunde batzordeak prestatutako papertxo ofizial bidez egingo da. (H.A. 54.2 artikulua)

Papertxoak eta gutunazalak bozketa tokian izango dira, eta, baita, aurretiaz, eskatzen duenarentzat, Federazioko egoitzan ere.

H.A. 55 artikulua dioenaren arabera, aurretiaz hauteskunde batzordeak onartutako papertxoak edo gutunazalak EZ erabiliz gero, bozka NULO izango litzateke. Aldi berean, papertxorik gabeko gutunazalak edo eta papertxo bat baino gehiago dituzten gutunazalak ere bozka NULO gisa hartuko dira.

Bestalde, bertan ageri diren izenak aldatuta, gehituta, gutxiagotuta, lekualdatuta edo eta beste edozein alterazio duten papertxoak ere bozka NULO gisa hartuko dira.

COVID-19 aren protokoloak agintzen duena jarraituz, bozkari bakoitzak, papertxoa duen gutunazala hauteskunde mahaiko presidenteari erakutsi ondoren, kutxan sartuko du.

## **BOZKARIEN IDENTIFIKAZIOA**

**Jokalarien, teknikarien eta epaileen estamentuetako** ordezkariak beraien izaera egiaztatu beharko dute. Horretarako, NAN a, pasaportea edo eta gida baimena erakutsi beharko dute.

**Taldeen estamentuko** ordezkariak, aurrekoaz gain, **H.A. ko 54.2** artikulua agindutako **ZIURTAGIRIA** ere erakutsi beharko dute. Horrela:

1-Taldeko idazkariak luzatu eta presidentearen onarpena duen **ZIURTAGIRIA** eman beharko dute, non, taldeko edo bozketarako honen ordezkari jaso duen ordezkari legala den ziurtatzen den.

Ziurtagiri horretan, pertsona horrek 2020 urteko **GFF-FGF ko presidente eta direktiba batzordea aukeratzeko Batzar Orokorrean egingo den bozketarako** ordezkari jaso duela ageriko da (hau da, ordezkari jaso duela eman zaion ekintza konkretua ageriko da). Guzti hau H.A. ko 54.3 artikuluko azken paragrafoan **“hauteskundeetarako ordezkariak”** ageri denaren ildoan.

2-Bozkaria taldeko idazkaria edo presidentea direneko kasuetan ere taldeak luzatutako ziurtagiri hori aurkeztea beharrezkoa izango da.

3-Ziurtagiri hau hauteskunde batzordearen esku geratuko da, jaso daitezkeen errekurtsioak direla eta.

**Dena den, ondorengo gomendioa egiten dizuegu: dudak ekiditekotan, ziurtagiri modelo ofiziala erabili dezazuela.**

Taldeetako ordezkariak dokumentazio gehiago aurkeztu nahi badute egin ahal izango dute. Dokumentu hauek hauteskunde batzordearen esku geratzea nahi izan gero, hauen kopia ekarri beharko dute.

H.A. ko 54.4 artikulua dioena ere gogoratu nahi dugu, hots: Batzar Orokorrean barruan ezin izango da bozka delegaziorik egin eta korreoz egindako bozkek ere ezinezkoak direla. Eta, aldi berean talde batetako ordezkari jaso duen pertsona batek ezin izango duela beste talde baten ordezkari izan.

Informazio gisa, taldeko ordezkari legala izango duen pertsonak aurkeztu beharko duen **ZIURTAGIRI** eredu argitaratzen da

Donostia 2020ko Abenduaren 1a

### **HAUTESKUNDE BATZORDEA**

Izpta: Iñaki Irigoien

Izpta: Lorenzo González

Izpta: Kepa Sanz

